

GC3ko 2. saioa

2018ko abenduaren 18a

.....

Saioaren helburua

“I-lab”aren helburuak bideratzea eta ZER eta NOLAren inguruko ikuspuntu ezberdinak biltzea. Helburua ez da izan bat etortzea edo ados egotea, baizik eta iritzi ezberdinak biltzea.

Parte-hartzaileak

Joseba Muxika, Javier Bikandi, Koldobike Uriarte, Gotzon Bernaola, Goizalde Atxutegi, Nerea Ollokiegi, César Rodríguez, Itziar Solozabal, Elsa Fuente Do-Rosario, Mikel Barturen, Olatz Jiménez-Eguizabal, Xabier Barandiaran, Ana Viñals, Aitzol Batiz, Danel Alberdi, Mikeldi Zeberio, Antxon Gallego, Jon Abril, José Luis Roncero, Diego Fernández, Itziar Calvo, Miren Arbelaz.

Gai-zerrenda

Nola nago?

Aurkezpen erronda bat eginez hasi dugu saioa, gure izena esan eta nola gauden azaltzeko.

Mapa-sortzeen edukien aurkezpena

Ricardo Antón-ek (ColaBoraBora) orain arte mapak sortzean egindako lana azaldu du. Edukiak 3 multzo ezberdinetan oinarrituta eratu dira:

1. Zertarako eta Zertan. Zer da lehentasun handiena duena eta esanguratsuen, eta zergatik?
2. Formatuak. Kideak, programak, baliabideak...
3. Antolakuntza. Gobernantza, kudeaketa, prozedurak, sarea...

Banakako hausnarketa

“I-lab”-aren nolakotasunaren inguruko banakako hausnarketari ekin diogu, multzoei eta mapak sortzean planteatutako gaiari erreparatuz, “I-lab”-aren ikuspegi orokor bat osatzeko.

Elkarrizketa-mahaiak

Gutxi gorabehera 5 pertsonako 4 taldetan banatu gara eta mapak sortzean planteatutako 3 eduki multzoen inguruko solasaldia izan dugu. Helburu nagusia honako hau izan da: parte-hartzaileek beren iritzia ematea gai bakoitzaren inguruan, elkarrizketa-mahaietan adostasunera edo ondorio batera heltzeko beharrik eduki gabe.

Mahai bakoitzean azaldu den guztia apuntatu du dinamizatzaileak, eta horren laburpena dokumentu honetako “akta” atalean jaso da.

Bateratzea

Talde bakoitzak elkarrizketa-mahaian 3 multzoen inguruan bildutako ikuspegia azaldu du.

Itxiera

Amaitzeko, parte-hartzaile bakoitzak saioa hitz batean laburbildu du.

Akta

Elkarrizketa-mahaia

Jarraian, mahaietan bildutako ikuspuntuaren laburpena dago, mapak sortzean planteatutako 3 multzoen arabera antolatuta.

1/ Zertarako:

- Administrazioaren aldetik martxan dauden proiektuei berrikuntza eta eraginkortasuna gehitzeko.
- Horretarako prestatutako testuinguru batean esperimentatu eta ikertzeko.
- Laguntza eta ikaskuntzarako.
- Elkarte eta sarea sortzeko eragile anitzen (administrazioa, enpresak...) topalekua izateko.
- Partaidetzaren esparruan erreferentea eta kalitatearen bermea izateko.

Zertan:

- Hiritarrei kezka eragiten dien gaietan ardaztuta.
- Hiritarren partaidetza hobetzera bideratuta.
- Gobernantza eta zerbitzu publikoak hobetzea hiritarrekin lankidetzan arituz.

2/ Formatuak:

- Estilo bat markatu eta moduak adostu, metodologia edo konponbide oso zehatzak eman beharrean.
- Multzotan datozen tresnak.
- Prestakuntza.
- Narratibak eratzea.
- Laguntza eta bitartekaritza zerbitzuak.
- Esperimentatzeko eta ikertzeko pilotuak.
- Baliabide digital eta fisikoen bateratzea.
- Egitura banatua, espazio zentrala eta plataforma teknologiko kolaboratiboa.
- Lurraldean zehar dabilen talde bat.

3/ Antolakuntza

- Eragile anitzak: administrazioa, gizarte eragileak, profesionalak, hiritar antolatuak.
- Egitura arina baina errekurtsoduna.
- Proiektuari jarraikortasuna emango dion dinamizatzaile baten garrantzia.

- Honako honetan oinarritutako egitura: partaidetzan adituak diren eta esperientzia duen eragile-nukleoa (erakundeak, enpresak, gizarte eragileak...) + talde irekiago bat, antolatutako hiritarrei edo hiritarrei orokorki zuzendutako esperimenduak aktibatzen. Nukleoa arduratzen da esperimenduko zereginetako ikaskuntza aztertu eta erazteaz. Hirugarren arlo bat sartzeko aukera, erazutako ikaskuntzak erakundeetan bultzatzeko.
- 3 laborategiz eta matrize batez (bat lurralde bakoitzeko) osatutako erakunde bat. Matrizeak laborategietan gertatutakoa jaso, aztertu, I+G egin, sistematizatu eta behatu egiten du.
- Proiektuak lan egiten duten eragile egonkorak eta aldi baterako eragileak.
- Talde eragile bat, lan ildoak eta helburuak markatzeko, eta lantaldeen araberako antolakuntza.
- Sareen sarea, gertatzen denaren balioa azpimarratzen duten nodo anitz eta banatuekin. Gauzak bateratzen dituen sare bat.